

Eneko Oñasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Non da bihotza?

G

arai batean sorkuntzatik kudeaketara salto egin genuenok prezio latza ordaintzen ari gara. Ez gu bakarrik noski. Sasoi hartan hitzetik hortzera zebilen proiektu hitza. Gaur berriz egitasmo. Eta hura baino, haren falta zen denon kezka gure kulturaren garapenari begiratzen genionean. Batez ere, gure ardura nagusiak sorkuntza izaten segitu duelako. Edo hala nahi izan dugu behintzat.

Garai haiek pasa dira ordea. Azken urtetatik hona gauzak aldatu egin dira. Gaur egun dena da estrategikoa, estrukturala, berrikuntzari lotua. Dena da plana, mahai sektoriala, behatokia, merkatuko kokapena. Hainbeste hitz eta mahai gauza bera izendatzeko. Segitzen dugu zerbaiten faltan eta inork ez dakigu zer den eta non dagoen. Inon baldin badago. Hori bai, bilaketarako metodologia ezin bikainagoak erabiltzen ditugu. Atzo DAFO zen gaur ez dakit nor asmatu zituen Sonbreroak dira. Nola bilatu aztertzen ematen dugu denbora baina zer bilatzen dugun ez dakigu oraindik. Eta bakoitzak badakiela uste du, baina denon artean ez gara ados jartzen. Eta horretarako arlo bakoitza osatzen dugunon parte-hartzea ezinbesteko baino derrigorrezko



INES URRUTIA

bilakatu zaigu han eta hemen. Ezin duzue imajinatu, edo bai, ikus-entzunezkoen arloa, esaterako, suspertzeko zenbat eta zenbat ekimen diferente dagoen. Zentzu horretan Tabakalera-koa salbuespena da, portu onera iristen bada. Gaur mahai sektoriala dela, bihar elkartearen bilera, etzi Tabakalera, etzi damu inkesta pare bat enpresan, lege berri bat, iritzia honetaz eta hartaz, laburmetrai lehiaketa, babes, aholkularitza, sustapena, berrikuntza, merkatuak, merkatu potentzialen garapenerako aukeren azterketak eta batek daki zenbat horrelako. Eta dena oso hotza. Hotzegia aukeran.

Eta denen gainetik, horietako bilera askotatik bueltan bueltaka zalantza bera. Edo sinesmen bera. Gaur egun gauzak, ia-ia, lehen bezala egiten direla, bakar batzuen lana eta borondateari esker. Hori erakutsi dit behintzat eskarmentuak eta hainbat lanetan topatu dudak jendeak. Koordinaziotik, herri honetan, oraindik oso urruti gabiltzala, alegia. Eta bila aritzen garen horietan, batzuetan, bideak eta estrukturalak eta metodologiak baztertu gabe, bihotzaren bidearen bila —edo bidean bihotzaren bila ari garenean— ahalegina maizago egin beharko genukeela uste dut. ■



Gaur egun gauzak, ia-ia, lehen

bezala egiten dira, bakar

batzuen lana eta borondateari

esker. Hori erakutsi dit behintzat

eskarmentuak eta hainbat lanetan

topatu dudak jendeak



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Omen dira. Besterik ez. Estropadetan irabazitako banderei, hola esaten zieten gure aurrekoek. Iaz ere, arraunlari gazte bati entzun nion Kontxakoari buruz ari zela. Baina ikurrina besterik da. Donostiako Buen Pastoreko dorrean jarritakoa, hirurogeita bostean edo izango zen, ez zen trapu soila izan, ekintza hark ekarritakoak frogatu zuen bezala. Poliziak inguratu zuen katedralea eta suhiltzaileen zurubi erraldoia erabili behar izan zuten hura kentzeko. Atxiloketak ere izan ziren eta orduan komisaldegian egurtutako bat behintzat, bizirik da oraindik lekuko. Hainbesteko gorroto sortzen zuena,

Trapuak

igarota, ohikoa bilakatu genuen. Berriro ere, espainolak jartzen ari dira modan. Bilboko Azkunak lehenik eta Donostiako Elorzak ondoren udaletxetako mastak piperpotoz jantzi dituzte. Legea betetzea da, omen, arrazoia. Eta legea, jakina sakratua da, herri ordezkari-ekin, nahiz eta hauteskunderetan besterik iragarri. Datozen autonomikotan esan dezatela argi, berriz ere eskalaztaileen beharra izango dugula ikurrina gure udaletxetako mastatan ikusteko, eta poliziak eta suhiltzaileak lanean jarriko dituztela legea betetzen. ■

legalizatu zuten noizbait eta edozertarako erabiltzen ezagutu genuen ondoren komertzianteen bizigai. Sukar hura